

PLE 10-FEB-23 (1/CP)

«IKUSIRIK espedientean jasota dauden agiriak, eta Aurrekontuei eta Gastu Publikoari buruzko 270/1998 Foru Dekretuaren 23.2 artikulua ezarritakoarekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

1.- Iruñeko Udalaren 2023ko aurrekontu luzatuan goranzko doikuntzak onestea, guztira 418.000,00 euroko zenbatekoarekin, gastu arrunteko dirulaguntza izendunetarako (4. kapitulua), xehetasun hauekin bat, eta horiek Aurrekontua betetzeko oinarrien 8. eranskinean txertatzea:

AURREKONTU-APLIKAZIOA	ONURADUNA / KONTZEPTUA	ZENBATE KOA
30/15220/482090	Iruñeko Abokatuen Elkargoa / Hitzarmena Hipoteka-bitartekaritzako Bulegorako	25.500,00
30/15220/482090	Arkitekturari buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko elkarte (AHEA) / Dirulaguntza Arkitektura Bienalerako	24.000,00
50/23910/482090	Instituto de Promoción de Estudios Sociales-IPES ELKARTEA Fundazioa / Emakumeen Liburutegia-Dokumentazio Zentroa mantentzeko laguntza.	25.500,00
50/33401/482090	Olentzeroren Adiskideak Elkarte / Laguntza, abenduaren 24an Olentzeroren kalejira egiteko	15.000,00
50/33401/482090	Errege Magoen Kabalkadaren Elkarte / Laguntza, urtarrilaren 5ean Errege Magoen Kabalkada egiteko eta aurrez, abenduan eta urtarrilean, gabon-ekitaldiak egiteko	55.000,00
50/33401/482090	Iruñeko Orfeoia / Hiriko musika-ondarea hedatu eta kontserbatzeko laguntza	100.000,00
50/33401/482090	Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Kultura-jarduerak egitea sustatzeko	20.000,00
50/33401/482090	Nafarroako Kultur, Kirol eta Aisialdirako Azpiegiturak SL (NKKAA) / Iruña Beltza eta Punto de Vista jaialdiak egitea sustatzeko	10.000,00
50/33401/482090	Nafarroako Ijitoen Erakundearen Gaz Kaló Federazioa / Sabcas goraiatzeko eta gogoratzeko kultur jarduerak sustatzeko	10.000,00
50/33501/482090	Euskaltzaindia / Hizkuntza-aholkularitzarako eta argitalpen lanari eusteko laguntza.	12.000,00
70/23181/482090	Elikagai Bankua / Bankuaren jardunak sortutako gastuen finantzaketa	40.000,00
70/23181/482090	Secretariado Gitano Fundazioa / Esku-hartze integrala gutxiengo etnikoekin, Iruñean	30.000,00
70/23181/482090	Nafarroako Desgaituen Entitate Ordezkarien Batzordea (CERMIN) / Finantzaketa, desgaitasuna dutenek parte hartzeko proiekturako, desgaitasuna duten pertsonen eta CERMINeko kide diren entitateen beharrak antzemateko eta haien eskubideak bermatzeko	15.000,00
71/23930/482090	Nafarroako Gobernu kanpoko Erakundearen Koordinakundea (NGGKEK) / Erakundearen jarduera finantzatzea Iruñeko herritarren informatzeko eta sentsibilizatzeko eginkizunean eta gainerako GGKEak proiektuetan koordinatzeko eginkizunean	36.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>418.000,00</b>

2.- Indarrean dagoen aurrekontua betetzeko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 1. puntuari onetsitako aldaketak jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean, erabakia Iruñeko Udalaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik aitzina. Hasieran batean onetsitako aldaketa baten kontra jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztuko balitz, horrek berekin ekarriko

du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onspen hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldatetek indarra har dezaten.»